

HIRU TXULO

Donostia eta txistua

Aritz Gorrotxategi



HIRU TXULO

Donostia eta txistua

Donostiako Udalaren Txistulari Taldearen historia

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2021eko azaroan

Azalaren eta liburuaren diseinua:

Erein

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

CC BY-NC 4.0 2015 - Kutxateka - Marín - Marí, Paco

© Aritz Gorrotxategi Mujika

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-740-2

L. G.: D 1252 - 2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9.

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net

HIRU TXULO

Donostia eta txistua

Donostiako Udalaren Txistulari Taldearen historia

Aritz Gorrotxategi

Argazki oinak:

Donostiako Udalaren Txistulari Taldea

Aurkibidea

-7-

HITZAURREA

-11-

LEHEN ATALA
TXISTUAREN HISTORIA

-51-

BIGARREN ATALA
ISIDRO ANSORENAREN BIOGRAFIA

-81-

HIRUGARREN ATALA
TXISTULARI ELKARTEA ETA HIRIA

-121-

BIBLIOGRAFIA

HITZAURREA

Ehun urte Isidroren iritsieratik

Udalaren txistulari izanik, Isidro Ansorenak 1922ko urtarrilaren 20an jo zuen lehen aldiz txistua Donostian. Hiriaren patrioiaren egunean, gala jantziaz eta korporazio osoaren gidari udaletxetik Santa Maria Basilikarako bidean. Ezin egun seinalatuagorik aukeratu.

Laster ehun urte beteko dira. Mendean hartu berria zuten orduan «espainiar» gripea, eta gaur COVID-19aren eragin gaiztoa gainditzeko asmotan gabiltza. Isidrok berehala ekin zion lanari. Krisian zegoen taldea jaso eta, era diskretuan baina ekimenez josisia, hiriak *bere* sentitu zuen hots laguna izatera eraman zuen donostiar txistulariena.

Azterketa bikainak zertuta, talde horren buruzagi lanpostua lortu zuenean, uste sendoa zuen Isidrok: donostiarren zerbitzari izan behar zuela. Hitz hau bihotzez zuen maite: zerbitzua. Maiz errepikatzen zuen taldeko jardunari deitzeko: gaur *zerbitzua* dugu Amaran, Añorgan *zerbitzua* izan dugu, egun horretan *zerbitzuan* izango gara udaletxean... Batzuetan, ordezkari publikoek eratutako ekitaldiak txukuntasun musikalez jantzen; besteetan, herritarrak alaitzen, dantzan jartzen, kantu eginarazten edo haien kultura

tradizionala hobeto ezagutzen eta dastatzen laguntzen. Zerbitzua era egokian bideratzeko, taldeko lagunek txapelaren aurrealdean zeramaten Udalaren ikurraren tankerakoak izan behar zuten eta duintasunari eutsi behar zioten egoera atseginetan... eta zailtan ere bai. Ez zuen orduan irudikatuko herritarren ordezkari horiek zein garrantz izatera irits zitezkeen, gerra eta ondorengo mende-kuak haragian sentiarazteraino.

Barruan zuen kemena non zegoen sustraituta hitz gutxitan xehatu zuen berak Euskal Herriko txistularien elkarteak Urrezko Domina eman zionean esandako hitzetan: «Sinistuta nago, Tagorek zioenez, Natura argiago mintzatzen dela txoriaren txorrotxioan kanoien eztrandetan baino. Sinistuta nago herrien ahotsa artean bizi dela, historiaren orrialdeetan baino gehiago, hauek hainbestetan pertsona eta klase menderatzaileek azpikeriaz egokituak izan baitira, euren interesen onuretan eta ez herrialdeen bizitzaren alde. Herri xehea izan da historiako isil nagusia, baina artean, bera da kantore buruzagia».

Isidroren itzala luzea izan da. Ikasle askorengan utzi du barruko su haren garra eta horiek jarraitu diote hark abiatutakoak zabaltzen eta ongi erro zitezen laguntzen: Fernando Vidal, Juan Antonio Arozena, Javier Hernández Arsuaga, Luis Udakiola... izen handiak gure historia txikirako.

Oihanean ibiltzeko zailena bide berriak zabaltzea da. Horietan barrena jarraitzea, laharak eta sastrakak garbitu ondoren, aise egiten da. Isidroren uberari jarraitzea erraza izan da horrela egokitu zaigunontzat. Baretasun egunetan edo ekaitz gogorrenetan ere, Isidro itsasargi deigarria izan da. Hark gidaturik saiatu gara eten gabe eguneratzen goiburu hura: donostiarren zerbitzariak gara.

Liburu honetan Aritz Gorrotxategik ibilbide horren zedarriak zehaztu ditu. Era erraz eta atseginean, gure tresnen historia aipatu ondoren, ehun urteko ibilbidea bildu eta denon begien aurrean jarri du. Etorkizunean bide ona aukera dezagun lagungarri izan daiteke. Eskerrak eman behar dizkiogu.

Donostiako Udalak ere badu honetan meriturik. Ez alkate, zinegotzi, agintari batek edo bestek, baizik eta agintari eta herritarren elkartzeak. *Aiuntamientua* euskarri eta babesa zela sentitu

dugulako urteetan. Donostia Kulturari ere eskerrak eman behar dizkiogu, lan honen prestaketan erabakitzaile izan delako. Baita *Eresbil* musikaren euskal artxiboari eta Euskal Herriko Txistularien Elkarteari ere, beren materialak erabil genitzan erraztasun handiak eman dizkigutelako.

Gozoro irakur dezazuela.

JOSE IGNAZIO ANSORENA MINER
Donostiako Udalaren Txistulari Taldeko zuzendaria
Isidro Ansorenaren biloba, besoetako eta ikaslea

LEHEN ATALA
TXISTUAREN HISTORIA

Musika tresna zaharrena

Ghienon iruditerian Orfeoren irudia dago, greziar mitologiatik jaso. Animaliak baretzen zituen bere liraren doinuekin, eta azpimundura jaitsi zen bere maitea, Euridize, berpizteko itxaropenez, baina esku hutsik itzuli behar izan zuen. Politikari eskainitako liburuan, Aristotelesek Atenea jainkosari egotzi zion txirularen asmaketa. Baina, antza denez, hura jotzen ari zela, jainkosak erre-kasto batean bere burua ikusi, eta masailak nola puztu eta desitxuratzen zitzaizkion ikusita, urrutira bota zuen. Kondairaren arabera, orein hezurrez egin zuen lehen txirula hura.

Pindarok ere aipatzen du kondaira hura bere poema batean. Zer gertatu zen urrutira jaurretako txirula harekin? Bada Marsiassek hartu zuela, eta musika tresna horren maisu handi bihurtu zen denborarekin. Apolori desafioa ere bota zion halako batean: ea nor zen trebeena bakoitza bere musika tresna jotzen. Apolok irabazi zuen, noski, eta Marsiassek bere bizitzarekin ordaindu zuen hala porrota nola harrokeria. Panen txirula ere aipatzen da greziar mitologian, baita siringa ere. Tradizio eta kultura guztietan badago zulodun airezko musika tresna bat. Adibidez, Antzinako Egiptotik datorren ney-a, India eta Pakistanen banbu pieza baka-rez egindako bansuria, Japoniako shakuhachi-a, inkatarren que-na, Hego Amerikako hainbat herrialdetan zabaldutako okarina,

irlandarren *Irish whistle*... Literaturaren bitartez ezagutu dugu herrialde askok txirulari eman izan dioten zentzu oroz gaineko eta magikoa. Derrigorrezkoak ziren ospakizun sakratuetan, eta gizakiek Jainkoen oparizat zeuzkaten.

Orain arte aurkitu den txirularik zaharrena, hezurrez egindako bat da, gutxi gorabehera 43.000 urte dituen, eta Alemania hegoaldeko kobazulo batean topatu zuten. Gurean ere beste kobazulo batean topatu zuten musika tresna horren lekukotasun zaharrena, Nafarroa Behereko Isturitzeko «Laminazilo» kobazuloan hain zuzen ere, eta adituen ustez, duela 25.000 urte ingurukoa da. 1921ean egindako indusketa batean atzeman zuten Pasemard doktoreak, eta Paristik hurbil dagoen Saint-Germain-en-Layeko Museora eraman zuten.

Antzinarorako, jada, musika jotzeko tresnagintzak bilakaera nabarmena izan zuen. Denborak aurrera egin ahala, bai luzera bai zuloak gehitu zizkieten. Euskal Herrian ez dugu oraingoz Antzinaroko lekukotasunik ezagutzen. Baina arestian aipatutako Isturitzeko aurkikuntza abiapuntu hartuta, pentsa dezakegu gure herrian ere gainerako herrietako ibilbidea egingo zuela. Agian, tresnen fabrikazio trauskila izan daiteke lekukotasun horiek desagertzearen arrazoa.

Erdi Aroa: koblakariak eta *flûte-tambourin* bikotea

Erdi Aroan koblakariak herriz herri ibiltzen ziren bizimodua atera nahian, erromes bideen sarean barrena zoria bilatuz. Banaka hasieran, gremioetan elkartuta geroago. Gotikoaren garaian azaltzen zaizkigu lehen aldiz txirula eta danborra batera. Koblakariei beren erromantze eta kantuen sarrera eta amaiera egokitzeko balio zien. Eta, pixkanaka, erritmo-tresna ere bihurtu zen. Izan ere, helburua jendea dantzan jartzea zen, eta danborraren hotsak urratsak markatzeko gaitasuna zekarren berekin. *Flûte-tambourin* bikoteak aurre-rapen tekniko berezia zekarren gainera: jotzaile bakar batek doinua eta erritmoa batera jo zitzakeen. Hiru zulo horiek, muga bat izatetik urrun, abantaila bat ziren, musikariari zortzidun batetik goragoko



XV. mendeko danbolin baten marrazkia, egungo Belgika aldekoa. Europako eskualde gehienetan agertzen dira danbolinen lekukotasun artistikoak egoera oso desberdinetan: jauntxoan saloietan edo kale gorriko herri festetan; bakarka edo beste musikariek batera; zeruan, gutxitan eta aingerutxo danbolin itxuran, edo sarriago infernuan. Eta euskarriak ere ugariak dira: elizetako zutabeen kapiteletan, tapizetan, margoetan (Egile ezezaguna).

piezak esku bakar batez jotzeko aukera ematen baitzioten, eta libre zuen eskuarekin perkusioa jo zezakeen. Oraindik ez zegoen txirulari horientzat postu finkorik, eta denboraldiko kontratuen bidez lan egiten zuten jaietan eta egun berezietan. Esaterako, Nafarroak bazuen fama musikari eta koblakariak ongi babestu ohi zituenekoa. Nolanahi ere, haien izenak ikusita, bistan da XIV. mende azkenera arte kanpotarrak izaten zirela. Ez dugu ahaztu behar, gainera, garai hartan eta geroago ere, Europa osoan Errenazimentuko kultur mugimendua indartsua izan zela, eta horrelako soinu-tresnak asko erabiltzen zirela. Tamalez, nahi baino datu gutxiago heldu dira gugana.

Euskal Herrian badira garai hartako lekukotasun idatzi eta ikonografikoak. XVI. mendeko udaletako erregistro eta kontu-liburuetan koblakari diren txirulariei buruzko kontratuak ordaintzeko partidak ageri dira. Irudi ikonografikoei dagokienez, ez dira gutxi gurean geratu diren eskultura, erliebe edo pinturak, esaterako, Iruñea eta Baionako katedraletan, Oliba Monasterioko, San Zerningo (Iruñea), Lekeitioko elizetan eta abar... Dokumentu zaharretan ikus dezakegunez, danbolintero bere inguruko gizartean erabat errotuta zegoen, eta bere musikarekin parte hartzen zuen herriko bizitzan, gizarteko lan, ospakizun eta abarren inguruko ekintzetan. Aita Donostiak jakitera ematen

digunez, kostaldeko herrietan baleak agertzen zirenean danbolinarekin aritzen zen danbolinteroak arrantzaleei abisatzeko. Lekeition, 1573. urtean, bederatzi hilabeteko izurria jasan zuten, eta danbolintero bat kontratatu zuten bere musikarekin herriaren mina, goibeltasuna eta kezka samurtzeko. Ezteietan, ezkonberrak arreoarekin bere etxera kaletik zihoazenean, danbolinteroak joaten zen segizioaren buruan. Adibideen zerrenda luzea da, eta garbi erakusten dute zein zen danbolinteroaren funtzioa eta gizartearen baitan zuen egoera.

Baina dena ez zen beti samurra danbolinteroentzat. Kristautasunera biltzeak, esaterako, aho-biko harremana ekarri zien. Gaur egun, Eliza eta erakunde ofizialekin gehienetan harreman onak badituzte ere, historian zehar danbolintero haiek bazterketa latza jasan zuten zenbaitetan, sarritan paganotzat jotzen ziren dantza, ekintza eta ohitura zaharren buru aritzen baitziren. Aita Donostiak adibide batzuk jaso zituen. Esaterako, aitortza egiteko orduan, danbolintero batzuek beren musika tresna erre egin behar izan zuten barkamena lortu ahal izateko. Edo kargu publikoak betetzeko debekuak ezarri zitzaizkien. Hori dela eta, zenbait herritan danbolinteroak agot eta ijitoak izaten ziren, eta festetarako kanpotik ekartzen zituzten. Jose Artetxek jakitera ematen digu jansenismoak elizarako sarrera debekatzen zela danbolinteroiei, eta meza atalasetik entzun behar izaten zutela. Inkisizioak ere sartu zuen atzaparra danbolinaren esparruan. 1611. urtean Hondarribian sorginei egindako epaiketan, salatari baten aitorenaren arabera, «Inesa Gaxengoa, danbolina jotzen ikusi zuela» agertzen da. Ez dakigu zergatik erabiliko zuten arrazoi hura haren kontra: emakumezkoek danbolina jotzea debekatuta zutelako ala berez danbolina jotzea bekatu zelako, edota bi arrazoiengatik. Bi danbolin-jole, Juan de Goiburua eta Juan de Sasiain, Zugarramurdiko akelarreetara joaten omen ziren musika jotzera, eta inkisizioak preso hartu eta erruduntzat jo zituen, nahiz eta gero barkamena jaso. Arte ilunekin lotutako danbolinteroaren irudi hori Grimm anaien *Hamelingo txirularia* ipuin ezagunean agertzen zaigu. Gugana heldu den bertsioan, txirulariak haurrak bere doinu gozoean pean herritik eramanez eta desagerrarazi ostean,

herritarrek agindutako dirua ordaindu zioten txirulariari herria arratoiez libratzeagatik. Hala ere, badirudi jatorrizko bertsioan Weser ibaian ito omen zirela haurrak. Ikus dezakegunez, Orfeoren eta Mefistofelesen mitoetatik edaten du ipuineko txirulariak, eta gizagaineko ahalmenak esleitzen zaizkio. Robert Browningek poema luze bat eskaini zion Hamelingo txirulariari, eta amaiera aldera, magiatik urrunduz eta praktikotasunari keinu eginez, honela dio: «Kontuak argi gizaki guztiekin, batez ere txirulariekin!».

Nolanahi ere, danbolinaren garrantzi musikalak eta sozialak gorabeherak izan zituen, eta maila ezberdinean garatu zen inguru kultural eta geografikoaren arabera. Errenazimendua izan zen garai indartsuena Europa osoan. Hala ere, XVI. mendearen erdialdera txirularen protagonismoak beherakada nabarmena izan zuen. Letren munduan klase eskolatuen eta herriko jendearen artean izan zen banaketa musikara heldu zen baita ere, eta, hori gutxi balitz, musika tresna berri bat sartu zen arrapaladan: biolina. 1550 urteaz geroztik, biolina txirula-danborraren lehiakide bihurtu zen, eta klase eskolatuek lehenaren alde egin zuten. Txirulari-koblakariak lanak izan zituzten bizimodua ateratzeko, eta landa-herrietako jaietara mugatu behar izan zuten bere jarduna. Pixkanaka-pixkanaka sokazko tresnak gailentzen joan ziren. Zirt edo zart egiteko unea heldu zen. Herrietako harrera beroan bilatu behar izan zuten txirulariek biziraupena eta habia, nekazari giroetan eta kultura tradizionallean. Gurean ohiko tresna izaten jarraitu zuen, eta dantzaren alorrean XVIII. mendera arte ia leku guztietan nahikoa sendo mantendu zen.

Aipatzekoa da XVII eta XVIII. mendeetan Tambourin izeneko genero musikala sortu zela frantziar konpositoreen artean. Provenztako danbolinen estiloa imitatzen zuten pieza laburrak ziren, Parisko Gortearen opera barrokoaren emankizunetan sarritan agertzen zirenak. Hasiera batean, doinu solteak jotzen zituzten ekitaldien tarte ugarietan. Tankera berezia zutela jabetuta, musikariak tankera horretako piezak hasi ziren idazten. Ezagunenaren artean, Jean-Philippe Rameau eta François Couperinek sortutakoak daude.

Nondik dator txistua

Orain artean koblakariez eta danbolinteroez mintzatu gara. Hiztegiari kasu egitera, koblakaria trobadorearen eta poetaren parekoa da. Hala ere, adiera hedatuenak bere kabuz zebilen musikariari egiten zion aipamena, nomada gisa edo batetik bestera ibiltari zebilenari alegia, festak animatzeko kontratatuta. Euskal Herriko zonalde askotan *ttunttunero* esaten zitzaion –eta esaten zaio gaur egun ere–, danbolinaren zarata zela eta. Ezagunagoa baitzen perkusioagatik txirula hotsagatik baino. Izan ere, «txistu» eta «txistulari» hitzak oso berriak dira. Juan Inazio Iztuetak *danbolin* hitza erabiltzen zuen tresna bikote hori jotzen zuen musikaria izendatzeko. Gutxi batzuetan *txilibitulari* ere bai. Eta bi tresnak bereizi nahi zituenean, batari *txilibitua* (flauta) eta besteari *arratza* (danbolina) esaten zion. Nabarmentzekoa da 1824an argitara eman zuen *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia* lana, non azterketa esanguratsuak eskaini baitzizkion danbolintzeroen jatorriari eta etorkizunari.

Hala ere, txistu izena (euskarazko *ziztu*, *fistu*, *txistutik* eratorria) XIX. mendearen bigarren erditik aurrera zabaldu zen kaletar giroan. Idatzizko azalpen zaharrena 1864koa da, *La joven Guipúzcoa* aldizkarian Miguel Ostolazaren *El Tamborilero* artikuluan ikus daitekeen bezala. Txistulariak musikari finko bihurtu zirenean, antzinako «koblakari», «juglare» deitura galdu zuten, eta are ezagunagoak bihurtu ziren danbor hitzari atxikita txirula hitzari atxikita baino.

Aipatu behar da txistuaz gain bazirela herri giroko musika tresna gehiago gurean, baina, gure arbasoek zaletasun handiagoa erakutsi zuten txistuarekiko, eta gainerakoak desagertzen joan ziren pixkanaka. Espainiako hainbat lekutan zen ezaguna hiru zuldun txirula: Katalunian, Huescan, Leonen, Santanderren, Zamoran, Salamancan, Extremaduran, Huelvan, Balear eta Kanariar Uharteetan... Tokiaren arabera, deitura ezberdina zuten tresnok: flabiol, chiflo edo chifla, xirimia, pito, gaita... Baina guztien gaineratik nortasun bereziena hartu duena txistua izan da, bai hotsaren ozentasunagatik bai jendartean sortutako giro eta harreragatik.

XIX. mendearen erditik aurrera tresnaren garrantzi sozialak halako atzeraldi bat izan zuen bestelako talde musikalen lehiaren ondorioz: murgak, bandak, rondallak... XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran akordeoi diatonikoak erronka zaila jarri zion. Krisi egoera horretan, *txistulari* deitura, musikaren kalitatearen ikuspegitik, aurrekoa baino hobetzat jo zen. Abertzale jaio berriek jatorragotzat zuten, hitza euskaratik zetorrelako. Izen berriaren laburtasunak eta zehaztasunak, oro har flauta adierazten duen *txilibitu* deiturarekin alderatuta, izango zuen zerikusia lortutako arrakasta eta zabalpen biziarekin.

XVIII. mendeko eraberritzea

Euskal *txistu eta danbolin* izenez ezagutzen diren tresnak arestian aipatu *flûte-tambourin* bikotetik datoz. Dakigunaren arabera, XVIII. mendearen azken laurdenean gauzatu ziren, Ilustrazioaren mugimenduak bultzatuta, Peñafloidako Kondea buru. Hau da, Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen eta Bergarako Seminarioaren eraginez. Garai horretan oso errotuta zeuden tresna horiek herri tradizioan. 1775ean William Bowles naturalista irlandarra Bilbora etorri zen bisitan, eta danbolindari talde bat ikusi zuen. Txistularien neurritasuna, erritmoa, melodia eta musikaren izaera ikusita eta entzunda, dena hain bitxia eta xarmangarriki arkaikoa iruditu zitzaion, ezen antzinatearen garaia etorri baitzitzaion burura: «Bilbok musika mota hori alokatzen du, txirula bat eta danbolin bat, greziarren eta erromatarren erara». Ilustrazioa Espainiara ekartzen gogotik saiatu zen Gaspar Melchor de Jovellanos asturiarrak ere entzun zituen danbolindarien doinuak, eta hitz bat etorri zitzaion burura: Adeitasuna. Musika tresna zahar hura geure egin genuen euskaldunok, eta inork gutxik atera zion guk bezainbeste zuku. William von Humboldten arreta ere erakarri zuen, eta Euskal Herriko musikari buruzko txosten bat eskatu zuen. Euskal lagun ilustratuek bidali zioten, *De la Música del País Vascongado* izenburupean.

Txistuaren arrakastaren beste adibide bat Juan Inazio Izuetak eman zigun, *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira*

edo historian: «Ez da sortu eta asmatuko ere, euskaldunentzako oskalkai edo instrumento pozkarriagorik, nola diraden danbolina eta txilibitua». Iztuetak berak aurrerago zehazten duenez: «Orain dalarik berrogei urte, gutxi gora bera, jarri zuen txilibitua musikan Pepe Anton zanak». Beste bide batzuetatik jasotako datuekin alderatuta, badirudi *Pepe Anton* delako hura Jose Antonio del Barrio izan daitekeela, merkataria eta Jose Javier de Echevarria lekeitiar txistulariaren babeslea. Vicente Iburguren donostiar danbolinteroa Iztuetaren adiskidea zen, eta honek kontatu zion Jose Javier de Echevarriarekin batera joan zela Madrileran, Erregearen erregimentu batean lan egitera, Medinacelliko Dukeak eramanda. Han, Gorteko giroan, festetan musika jotzen ibili ziren, eta hainbat funtzio pribatu eskaini zituzten Carlos IV.a erregearentzat. *Pepe Anton* izan zen, hain justu, Madrileko abentura diruz sustatu zuen mezenasa. Ez dago horren argi euskal txistua solfan jartzeko lana berak, zuzenean edo enkarguz, egin ote zuen, baina badirudi txistua pentagramara eramaten lehena izan zela.

Garai horretan tresnetan gertatu ziren aldaketa guztiak ere ez ziren *Pepe Antonek* bultzatutakoak izan, baina argi dagoena da tresnagintzaren kalitatea hobetu egin zela. Iztuetak berak ere argi zehazten ditu urte horietan bi tresnei egokitu zitzaizkien aldaketa nabarmenenak: txilibitu eta danbolinaren tamaina txikiagoa bihurtu zen, errepertorioak eraberritu-eguneratu egin ziren eta txilibitularien estima sozialak (ordurako musikari letratu bihurtuak sarritan eta egoera berriaz harropuztuta) gora egin zuen. Agian, testuinguru horretan izan lezake jatorria metalezko pita eta mihien zabalpenak. Bide batez, txilibitu eredu handiago eta soinu baxuago bat agertu zen ere: silbotea. Ziurtatuta dago, gainera, taldekako joaldiak garai hartan sortu zirela. Hortaz, txistulari talde tradizionalaren hazia (bi txistu, txistu handia edo *silbotea* eta atabala) han sortu zela ondoriozta dezakegu.

Tresna bikotea musika kultuan sartzeak aurreko tradizioarekin haustura ekarri zuen neurri handi batean. Bergarako Seminarioan garrantzi handia ematen zitzaion danbolinari herri dantzen laguntzaile gisa. Ordu arte, antzinatek eginkizun tradizionaletarako

zabalduta zeuden doinuak erabiltzen ziren: *Zezen soinua*, zezenen festarako; *Alkate soinua*, udaletako ordezkarien segizio solemneak laguntzeko; *Kontrapasa eta zortzikoa*, dantza modu oso hedatuetarako... Bergarako Seminarioaren eskutik erabakigarria izan zen eraberritze prozesu bati ekin zitzaion: aipatu ereduaren gainean, ilustratuek eta eurentzat lan egiten zuten musikariek (maiz atzeritik etorriak) benetako iraultza egin zuten, doinu horien modua ahal zuten neurrian eredu klasikoei asimilatzen, berezko musika generoak sortzen, goiko erregistroan nota berriak irabazten... Adibidez, *Alkate soinua* Minuet bihurtu zuten, eta lehenago doinu gutxi batzuk zeuden lekuan, kopurua ugaldtu zuten, beti ere garaiko irizpide estetikora hurbilduz. Horren ondorioz, egungo txistularien errepertorio zaharrena Ilustrazio garaian sortutako genero horien obretan aurki daiteke. Bestalde, txirula orduko musika kultuarekin uztartzeko ahaleginean, emaitza deigarriak lortu ziren. Esaterako, Baltasar de Manteli gasteiztarra Mozarten *Xirula magikoaren* «O cara armonia» musikaren aldakiak interpretatzeko gai izan zen. Vicente Iburguren donostiarrak, berriz, biolinerako kontzertu bat burutu zuen txistuarekin.

XVIII. mende amaieran danbolintero jantzien garaia heldu zen, txistua goren puntura eraman zuena. Dagoeneko txistulariak ez zetozen soilik herriko jende xehearen artean, eta musikari kontzientzia bereganatua zuten. Iztuetaren ustez, hotsa hobetzea ekarri zuen horrek. Hala ere, gogor jo zuen txistulari berrien belaunaldiaren kontra, herri-dantzak alde batera uzten ari zelako. Iztuetak tarteko bidea bilatzen zuen: doinu berriak onak badira, onar ditza-gun, baina beste hainbeste egin dezagun antzinako doinuekin, ez ditzagula ahaztu hala merezi badute. Behin atea irekita, ordea, ezin ziren atzerriko dantza motak bazterrean utzi: fandangoa, valsa, polka, rigodona, mazurka, habanera, boleroa eta abar. Pablo Gorosabel kronikagileak gogorarazten digun bezala, ohitura eta gustu aldaketa horietan zerikusia handia izan zuten atzeritarren (batez ere frantziarrenak) XVIII. mende hasierako inbasioek. Eta, ondoren, dantza berriagoek zahartuak utzi zituzten inbasio garaikoak ere. Gorosabelek esandakoa danbolintero zaharren errepertorioak aztertzean egiazta daiteke.

Jose Luis Ansorenak dioen bezala, Ilustrazioaren etorrerarekin heldu zen danbolinteroan askatasuna, eta estimua berreskuratatu ez ezik, kultur mailan garrantzia erdietsi zuten ere. Jakina, denek ez zuten begi onez ikusten Ilustrazioaren eragina. Ezaguna da, adibidez, Mogelen *Peru Abarka* eleberrian egiten den kultura tradizionalaren defentsa eta ilustrazio *gaizki ulertuaren* karikatura. 1802an idatzi arren, liburua ez zen 1881era arte argitaratu. Mogelen testuan Maisu Juan kaletarra ezjakina da, eta Peru Abarka, aldiz, baserriko eskolan hezi eta zaildutako gizon jakintsua. Maisu Juanek erdarakadez betetako hizkera darabil, eta ez da oso gizon elizkoia. Peru, ordea, hizkera aberats eta garbiz mintzo da, eta otoitz zalea da erabat. Euskal gizartean orduan gori-gori zebilen kaletarren eta baseritarren arteko ikuskeraren talka islatzen du lanak. Eta ez hori bakarrik, ordukoak baitira Gerra Karlistak, Karlisten eta Liberalen artekoak alegia.

Bitxiki, gure iruditerian tradizioarekin lotzen dugu txistua, euskal senarekin, baina Ilustrazioaren hauspo berritzaileari esker lortu zuen aurrera egitea eta eraberritzea, musika kultuarekiko atxikimendua zeukan jendearen eskutik. Ondoren, berehala ikusiko dugun bezala, XIX. mendean sortu zen abertzaletasunak bultzada handia eman zion. Nolanahi ere, ez dira gutxi tradizioaren eta ilustrazioaren arteko gaizki-ulertuak eta errezeloak. Enbor bereko paradoxa deigarri horietako bat bururatzen zait: jende askok uste du agintarien agerpen erritualak erlijiosoak direla, tradizioz hala direla, baina ez da horrela, Jose Ignazio Ansorenak gogorarazten digun bezala, jatorriz zibilak eta laikoak baitira agerpen horiek. Adibide esanguratsu bat Donostiako Salbeko prozesioa. Askok pentsatu eta zabaldu dutenaren kontra, desfile zibikoa da. Berez, elizak gonbidatzen du botere zibila, eta botere zibilak aukeratzen du joatea ala ez. Eta joatea aukeratzen badu, *«en cuerpo de ciudad»* doa, alegia gehigarri guztiekin, gala guztiak jantzia, norbait badela erakusteko (antropologoak hurbildu dira gai horretara, baina, zoritxarrez, asko geratzen da oraindik ikertzeko). Agintariek herritarren begiradari eutsi behar diote, haiengandik baitatorkie boterea, eta herritarren begiradak horixe bera gogorazten die, kudeatzaile hutsak baino gehiago, ordezkariak

direla. Segizio erritualak Erdi Aroan sortu ziren, hiribilduetan, baina guk ezagutzen ditugun segizioak XVIII. mendekoak dira. Segizio horietan danbolintero taldeak eta klarinak egoten ziren. Nola diren gauzak... Batzuetan, zenbait jarduera tradizioan oso errotua daudela uste izaten dugu, baina, egiazki, ez dira denboran oso urrutikoak. Eta alderantziz, berriztat jotzen ditugunak ez dira horren berri. Azken urteotan bereziki ugaltu den Halloween



Donostiako Udalaren txistulari taldea Santa Maria Basilikatik Herriko Etxera bidean, Korporazioaren heraldo, *Alkate soinuua* jotzen. Atzean ikusten dira udaltzain batzuk, gala jantziarekin, eta mazolariak. Hurrena, alkatea eta zinegotziak. Jotzaileak ezkerretik eskuinera: Javier Hernández Arsuaga, Jose Antonio Altuna, Olegario Izagirre eta Ramon Andueza. 1970eko irailaren 8an, Koruko Ama Birjina egunean. Urte hartan, asteartean egokitu zen eta, soilik festa lokala zenez eta kanpoan lan egiten zenez, Lazaro Altuna atabalariak ez zuen baimenik lortu jotzera hurreratzeko. Horregatik Ramon Andueza ordezko. Segizio hauetan ohikoa zen klarinek ere laguntzea, baina urte hartan ez ziren izan. Aurreko urteetan ibilitako azkenak, Jose Ugarte eta Luis Garroña, urtetsuak ziren eta utzi egin zuten jarduera. Baina berriak lortzeko ez zen modurik izan, udalaren ordezkariek ez zutelako behar bezala ordaindu nahi.

Garai haietan udaletxetik Santa Mariara joate horiek, hemengo erretorearen gonbitari erantzunez, urtean lau aldiz egiten ziren: San Sebastian eguneko meza nagusira; abuztuaren 14an, *Salvera* eta 15ean baita Koruko Amaren egunean ere, meza nagusira. Ramon Labayen alkateak berrezarri zuen 1983an, abenduko hirugarren igandean hiriak Koruko Ama Birjinari egina zion eta urtero berritzen den botoaren irakurketara ere horrela joatea. Tankera honetako ibilaldiak bestelako egokieretarako ere antolatzen ziren, ez beti elizara joateko. Baina, abuztuaren 14aren inguruan sortzen ziren kale istilu politikoak tarteko, Odón Elorzak bertan behera utzi zituen denak 1995ean eta geroztik ez dira, elizarakoak behinik behin, errepikatu (Argazkigile ezezaguna).

jaiarekin ikusi dugu hori. Ipar Ameriketatik zetorren moda omen zen, Defuntuen Eguna bazterrean uzteko asmoz. Eta hara non hasi diren lekukotasunak agertzen han-hemenka, gurean ere Arimen Gaua ospatzen zela, euskal tradizioan ohitura zaharra omen dela. Askorentzat harrigarria bada ere, 1950eko hamarkadara arte, gutxienez, gure herri eta eskualde gehienetan bizirik iraun zuen ohitura izan zen.

Dena den, mamuak, hilak eta kate hotsak alde batera utzi, eta itzul gaitezen txirula hotsetara. Arestian aipatutako Bergarako Seminarioaren lanaz gain, erabakigarria izan zen Udaletako soldatapeko danbolinen orokortzea. Izan ere, Udalak ere ohartu ziren zer nolako paper garrantzitsua betetzen zuen danbolinteroak, eta gutxi-asko finakoak izango ziren kontratuak egiteko ohitura hartu zuten, gutxienezko arautegi batekin. Beharrian berezi bat ere jartzen zieten azken hauei, ikasleren bat izatea eta hura prestatzea, ordainetan ezer kobratu gabe. Ikasle horiek ordezkutzen zituzten danbolintero horren hutsuneak herrian. Beren musikari izaera ongi ustiatu arren, sarritan danbolinteroek ez zuten lanegun oso bateko irabazirik ateratzen. Horretaz ohartuta, udalak beste lanbideren bat ematen ahalegintzen ziren. Atabalariaren kasuan, askotan gomendatzen zitzaion pregoilari izatea. Postari ere baziren batzuk, baita kanpai-jole edo ordulariaren arduradun ere (erlojurik baldin bazegoen, udaletxearena edo parrokiarena, leku bakoitzaren arabera). Agian, bati baino gehiagori ipuineko ikasbidea etorriko zitzaion gogora, itzal bat bezala: «Kontuak argi gizaki guztiekin, batez ere txirulariekin!». Badaezpada.

Nolanahi ere, ilustrazioak ekarri zuen goren puntu hura ez zen iraupen handikoa izan, eta XIX. mende erdialdeaz geroztik gain-behera nabarian erori zen txistua; hain zuzen ere, musika bandak, txarangak, akordeoia, trikitia eta beste musika taldeak sortzearekin batera. Izan ere, musika talde berri horiek berehala bereganatu zuten herritar jendea. Gainera, musika tresna berri horiek errentagarriagoak zirenez, danbolinarekin zerikusia zuen orok kalitatea galdu zuen (musika tresnak kalitate txarragoak ziren, jotzaileen teknika eskasagoa...). Zaratak ere izan zuen zerikusia aldaketa horretan. Hiri-inguruneetan gora egin zuen zaratak, eta, ondorioz,

danbolindariak beren erregistroak igo behar izaten zituzten, bai eta karrankariagoak bihurtu ere. Bide batez, txistuak bere ohiko afinazio altuari eutsi zion, eta afinazio horrekin oso zaila zuen beste musika taldeekin batzeko. Hori gutxi balitz, XIX. mendearen amaieran eskusoinuak benetako zirrara eragin zuen gazteen artean. Eliz giroan *infernuko hauspoa* deitzen zitzaion, gazteak atsegin handiz elkartzen baitziren dantza lotuan haren doinuaren pean.